

AMOREBIETA-ETXANOKO JAIETARAKO PERTSONAIAREN SORKUNTZARAKO LEHIAKETAREN OINARRIAK. (IRUDIDUN ALBUNA)

Partaide bakoitzak lehiaketara proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du. Lana irudi zein testuaren bitartez Amorebieta-Etxanorekin harremana duen pertsonai bat (errealia zein alegiazkoa) irudikatzean datza. Irudiak pertsonaia karakterizatuko dute eta testuak bere bizi-ibilbidea finkatuko du. Zehazki, **IRUDIDUN ALBUN** bat argitaratzeko materiala eskatzen da.

1. Taldean zein bakarka parte hartzeko aukera dago
2. Helburua Amorebieta-Etxanoko jaietako adierazgarri den pertsonaia sortzea da. Sortzen den pertsonaia Amorebieta-Etxanoko bizimodu, historia, tradizio eta ohiturekin lotuta egon behar da.
3. Teknika eta formatua aukerakoak izango dira, eta baita testuaren ezarpena eta diseinua ere. Azken emaitza irudidun albur bat koloretan argitaratzeko egokia izango da, beraz, testua eta irudiak izan beharko ditu.
4. Euskarri digitalean aurkeztu beharko da ezinbestean proiektua (jpg, pdf edo psd). Proiektuak nora aurkeztu:

Posta arruntaz bidaliz gero, edo eskura emanez gero Zelaietako liburutegian egingo da, gutun-azal baten hurrengo izenburuarekin: *Amorebieta-Etxanoko jaietarako pertsonaiaren irudi promozionalerako lehiaketa*: Udal liburutegia Zelaieta parkea z/g 48340 Amorebieta-Etxano. Lehiatzailearen datuak gutun-azal itxi batean sartuko dira: izena, bi abizen, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia.

5. Proiektuak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 31an amaituko da, 14.00etan.
6. Lanek ezingo dute toki ikusgarrian eraman egilea identifikatzeko bide emango duen izena edo bestelako daturik.
7. Ezinbestean eduki beharko ditu egileak irudikatzen diren pertsonaien eskubideak.
8. Aurkezten den proiektua ezingo da beste ezein lehiaketatan saritua edo merkataritza xedeetarako erabilia izan.
9. Proiektu irabazlea, hurrengoak osatuko duten, epaimahai batek aukeratu du:
 - Arte plastikoetan aditu bat, gutxienez argitalpen bat izango duena.
 - Argitaletxe bateko ordezkari bat
 - Tokiko artista bat
 - Ametx Erakunde autonomoaren presidentea
10. Ekainaren 28an aurkeztuko da zein den irabazlea, Zelaieta zentroan eta ondoren www.ametx.eus webgunean.
11. Ametx Erakunde autonomoak konpromisoa hartzen du irabazle suertatzen den proiektua IRUDIDUN BATEN argitaratzeko.
12. Lehiaketa honetan aukeratutako pertsonaia urteroko jaietako karteletan erabiltzea aurreikusita dago, baita jai batzordeak bidezko estimatzen dituen gainontzeko produktuetan.
13. Epaimahaiak aldaketak ezarri ahal izango ditu lanaren argitalpen egokia ziurtatzeko eta formatu ezberdinetara egokitzeko.
14. Lehiaketan sari bakarra izango da: 3000 euro garbi. Epaimahaiak hutsik utz dezake saria.

15. Lehiaketaren irabazleak edo behar bezala baimendutako honen ordezkariak, emandako saria jasotzeko eskubidea izango du. Irabazlea talde bat bada, taldearen ordezkariak jasoko du.
16. Proiektu irabazlea Ametx erakunde autonomoari eta Amorebieta-Etxanoko udalari emango zaio, eta beretzat gordetzen dute erabiltzeko eskubide guztiak.
17. Ametx erakunde autonomoak eta Amorebieta-Etxanoko udalak, erreprodukzioarako eskubideak beraientzat gordetzen dituzte egokitzat jotzen dituzten formatu zein euskarrietan argitalatzeko, baita saritutako lana aldatzeko ere, materialaren ezaugarriak edo euskarriak bere osotasunean argitaratzeko aukera ematen ez dutenean, eta lanaren zati eta elementu ezberdinak bakoitza bere aldetik erabiltzea ere.
18. Proiektuaren egileak beharrezko eskubideak emango ditu, testua zein pertsonaia hurrengo urteetan Amorebieta-Etxanoko jaien edozein komunikazio edo promoziorako erabili ahal izateko.
19. Jaietako irudia egiteko erabiltzen diren irudiak edota testuak behar bezalakoak izango dira, generoen arteko berdintasunari dagokionez.
20. Oinarri hauetan agertzen ez den edozein arazo epaimahaiaren irizpidea jarraituz konponduko da. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
21. Zein proiektuk irabazten duen jakinarazten denetik zenbatzen hasi ondorengo 30 eguneko epearen barruan itzuliko dira saririk jasotzen ez duten lanak Gazteentzako Informazio Bulegoan, bertako jardueraren ohiko ordutegian. Antolatzaileek ahalik eta kontu handienaz zainduko dituzte entregatzen diren lanak, baina ez dira erantzule izango galdu edo narriatuz gero.
22. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea.